

## GOGORATZEKO DATUAK

Ematen du orain politikoki zuzena dela bolibartar erregimena iraintzea, edonolako zitalkeri eta aldrebeskeriak egotziz. Horrelako hitzek, baina, ez dute zerikusirik errealitatearekin. Venezuelako herritarren zati handi batek herrialdeko Gobernua babestu du modu lehialean behin eta berriz, eta babesten du orain ere.

Ez dira zoroitsuak, ez dira lasai bizi botereak emandako goxokiekin. Garestitzeak eta eskasiak zigortutako herritarrak dira; baina badakite erregimen bolibartarrak sekulako esfortzua egiten duela herritarren ongizatea bermatzeko.

Datu asko aipatu ahalko genituzke. Hemen batzuk besterik ez :

- Zonaldeko herrialdeen artean, pobreziaren ehuneko gehien txikitu duena da Venezuela: 1998an %28,9 izatetik %19,6ra igaro zen 2013an.
- Muturreko pobrezia egoeran zeuden etxeen kopurua %10,8tik %5,5era igaro zen denbora-tarte berdinean.
- Desparekotasunaren aurka gehien borrokatu den herrialdea da bere zonaldean.
- Unescok Venezuela “Analfabetismoarik Gabeko Herrialdea” zela adierazi zuen Chavezen gobernuaren garaian. Lehen hezkuntzan %95,90ko eskolatzeta-tasa dauka.
- 5 urte baino txikiagoak diren haurren artean desnutrizioa %7,70koa zen 1990an eta %2,53koa 2013an. FAO-k (Elikadura eta Nekazaritzarak Nazio Batuen Erakundeak) merezi zuen aitortza eman zion.

Askapena